



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Jagoba Manterola Ruiz  
Mikel Gereka Zelaia  
José María Alzuri Vertiz  
Carmelo Ayoroa Hualde  
María Izaskun Altxu Ariztegi  
Javier Bereau Miquelarena

2015eko urriaren 29an, 19:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

## **1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.**

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

## **2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.**

1. C.L.A.k lizentzia eskatu zuen, *Tresenea Txikia* etxeko terraza estaltzeko, etxeak daukan teilatua luzatuz. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea L. andreari. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 4.845 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 145,35 euro.

Baldintza hauek bete behar ditu baimendu diren obrak egiterakoan:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

2. M.A.E.B.k lizentzia eskatu zion Zubietako Udalari, ur-hornidura eramateko Iturengo eremuan dagoen Bizarronekobordara (3 poligonoko 123 partzela), Zubietako zerrategira doan ur-saretik hartuta (lurzoru urbanizazina). Iturengo Udalbatzak, 2015eko otsailaren 26ko Bilkuran erabaki zuen aldeko txostena ematea obrari eta Zubietako Udalaren esku uztea espedientearen tramitazioa eta ebazpena.

Lurraldearen Antolamenduko eta Hirigintzako zuzendariak baimena eman zuen (116E/2015 Ebazpena) zehazte batzuk betetzeko baldintzapean, eta haien artean, herrilurra okupatzeko baimena, 3 poligonoko 126 partzela komunala zeharkatzeko (50 metro lineal).

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 172. artikuluan xedatuari jarraikiz, ahobatez –arazuko quoruma- erabaki da:

1. Hasiera batean onestea 3 poligonoko 126 lurzatiko 50 metro lineal okupatzea Ezkurra jaunak eraiki nahi duen ur-sarearekin. Baldintza administratiboen plegua onetsi da.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, hamabortz laneguneko epean jendaurrean egoteko.

**3. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2 POLIGONOKO 81, 82, 289, 920, 537, 538, 158, 288, 286, 285 ETA 284 PARTZELAK (ITUREN).**

Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa, 2 poligonoko 81, 82, 289, 920, 537, 538, 158, 288, 286, 285 eta 284 partzelei dagokiona, hasiera batean onetsi zen 2014ko irailaren 18ko Osoko Bilkuran. J.A.O. eta I.A.E. dira espedientearen sustatzaileak.

Nafarroako Gobernuak eman zuen txosten orokorra (0009-OT04-2014-000043 espedientea), onetsitako agirian zenbait puntu aldatu, argitu eta osatzeko eskatuz eta B.U.G.k sustatu zuen aldaketa espedientearekin batera koordinatu eta justifikatu behar dela adieraziz.

2014ko irailaren 18ko Osoko Bilkuran onetsi zen “Iturengo Udalaren jarraibideak eta irizpide orokorrak Iturengo ipar-mandebaldeko aldean hirigintza eredua eta oinarritzko antolamenduari buruz. Iturengo Planeamendurako Arau Subsidiarioak” izeneko agiria.

Sustatzaileek agiria aldatua aurkeztu dute eta Udal arkitekto aholkulariek aldeko txostena eman dute.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 80, 79, 70 eta 71. artikuluekin bat etorriz, aho batez, erabaki da:

1. Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldatetari behin-behineko onespena ematea.
2. Espedientea igortzea Sustapen Departamentura, behin-betiko onetsi dezala eskatuz.
3. Erabaki hau jakinaraztea 2 poligonoko 284, 285 eta 286 partzelen jabeei, aldatetatik kanpo gelditu direlako behin-behinekoz onetsitako agirian.
4. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileei.

**4. ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA. 2 POLIGONOKO 85 ETA 86 PARTZELAK (ITUREN).**

Planeamendurako Arau Subsidiarioen antolamenduko egiturazko determinazioetako aldaketa, 2 poligonoko 85 eta 86 partzelei dagokiona, hasiera batean onetsi zen 2014ko abenduaren 17ko Osoko Bilkuran. B.U.G. da espedientearen sustatzailea.

Nafarroako Gobernuak eman zuen txosten orokorra (0009-OT04-2015-000003 espedientea), onetsitako agirian zenbait puntu aldatu, argitu eta osatzeko eskatuz eta J.A.O. eta I.A.E.k sustatu zuten aldaketa espedientearekin batera koordinatu eta justifikatu behar dela adieraziz.

2014ko irailaren 18ko Osoko Bilkuran onetsi zen “Iturengo Udalaren jarraibideak eta irizpide orokorrak Iturengo ipar-mandebaldeko aldean hirigintza eredua eta oinarritzko antolamenduari buruz. Iturengo Planeamendurako Arau Subsidiarioak” izeneko agiria.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Sustatzaileak agiria aldatua aurkeztu du eta Udal arkitekto aholkulariek aldeko txostena eman dute.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 80, 79, 70 eta 71. artikuluekin bat etorritik, aho batez, erabaki da:

1. Planeamendurako Arau Subsidiarioen aldaketari behin-behineko onespina ematea.
2. Espedientea igortzea Sustapen Departamentura, behin-betiko onetsi dezala eskatuz.
3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari.

**5. XEHETASUN AZTERLANA. 3 POLIGONOKO 22 PARTZELA (AURTITZ).**

Aurtizko Auzoan dagoen 3 poligonoko 22 partzelako lerroakadak eta sestrak aldatzeko xehetasun azterlana aurkeztu zuen T.E.L. jaunak. Udal arkitekto aholkulariek aldeko txostena eman dute. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74 eta 76. artikuluei jarraituz, aho batez erabaki da:

1. Hasiera batez onestea 3 poligonoko 22 partzelako lerroakadak eta sestrak aldatzeko xehetasun azterlana.

2. Akordio hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan argitaratzea, hogeitun laneguneko epean jendaurrean egoteko.

**6. MITXELTENEBORDAKO ZUBIA.**

*Mitxeltenekoborda baserri* aldera joateko zubia dago Ezkurra errearen gainean. Zubi horren pareta bat eroria dago eta arriskutsua da toki horretatik ibiltzea. Bianako Printzea Erakundeari txostena eskatu zitzaion, zubia konpontzeko alternatibak emateko eskatuz.

Bianako Printzea Erakundeak egindako txostena irakurri ondoren, aho batez erabaki da:

- Porlana botatzea lurrian eta egurrezko barandak jartzea.
- Kantauriko Ur-Konfederazioari eskatzea obrak egiteko baimena.
- Lanak auzolanean egitea.

**7. ZENBAIT ESKAERA.**

1. Arantzako Udalbatzak munduko egoeraren aurrean hartutako erabakiarekin bat egin da aho batez.

2. Aho batez onetsi da mozio hau, indarkeria matxisten aurkako manifestazioari buruz:

“2015eko azaroaren 7an, Madrilen Estatu osoko milaka pertsona bilduko gara, Mugimendu Feministak deituta, indarkeria matxisten aurkako manifestazioan.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Pertsona eta entitate guztiak, bereziki publikoak, deituta gaude manifestatzera eta herritarren ekintza horretan laguntzera ez ezik, prebentzioa eta oraindik dirauen indarkeria matxistari ematen zaion erantzuna berraktibatzen eta hobetzera ere. Indarkeriaren iraupen hori agerian geratu da uda honetan izandako kasu hain larriekin, generoko indarkeriaren aurkako 2004ko lege integraletik hamar urte igaro diren arren, autonomia erkidegoetan lege ugari egin diren arren eta Istanbulko Hitzarmena berretsi (EAO, 2014-06-06koa) eta urtebete iragan den arren; izan ere, arau horiek guztiak nabarmen urratzen dira hezkuntza esparruko prebentzioari dagokionez, eta lan-babesa nahiz babes ekonomikoa, edo etxebizitzakoa, 126.742 salatzaileen % 1i baizik ez diete ematen, indarkeriaren haztegi den berdintasunik ezak gora egiten duen bitartean.

Udalak, erakunde hurbilagoak garen aldetik, ezinbestekoak gara prebentziorako eta laguntza sozial, juridiko eta psikologikorako, hala ezartzen baitute bai estatuko 1/2004 Legearen 19. artikulua, bai Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak ere<sup>1</sup>. Hala eta guztiz ere, Toki Araubideari buruzko Legeko 27.3.c) artikulua, 27/2013 Legearen bidez aldatuak, dio udalek zerbitzu sozialak, aukera-berdintasuna sustatzekoak eta emakumearen aurkako indarkeria prebenitzekoak eman ahalko dituztela soilik Estatuak edo % 100 finantzaturako autonomia erkidego batek eskuordetuta, eta horiek ez dituztela inolaz ere estaltzen 2016rako Estatu Aurrekontuen Proiektuko Genero Indarkeriari buruzko 232C programako 45. kontusaileko 6 milioiak.

Hori dela eta, udal honek ERABAKI DU:

- 2015eko azaroaren 7an Udaletxeko fatxadan pankarta more bat jartzea, "Indarkeria Matxisten Aurka" leloarekin, eta herritarrek martxan parte har dezaten sustatzea.
- Urtero, gauza bera egitea, azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean.
- Urteko egun guztietan eta urtero, berdintasunerako, prebentziorako eta indarkeria matxistaren biktimei laguntza juridiko, sozial eta psikologikoa emateko baliabide pertsonal, material eta politikoak mantentzea, 1/2014 Lege Organikoko 19. artikulua betez eta horretarako estatuko, autonomia erkidegoko eta tokiko finantzaketa sistema egonkor bat, epe luzeak, ezarri.
- Arreta egonkor eta kalitatezkoa ematea, irisgarritasun zabaleko eta konfidentzialtasun-, babes- eta anonimotasun-baldintzetan, horren barne direla errehabilitazioa, ebaluazioa eta jarraipena. Horrek berdintasunerako eta genero indarkeriaren aurkako zerbitzuen zuzeneko kudeaketa publikoa eskatzen du.
- Berdintasuna sustatzen eta genero indarkeriaren aurka egiten laguntzea ikastetxe eta hezkuntza etapa guztietan, eskola erkidegoarekin lankidetzan arituz.
- Sexismoaren aurkako sentsibilizazio-kanpainak egitea kultur jardunean, festen antolaketan, segurtasun eta bizikidetasun jardunean eta udal eskumeneko zerbitzu eta jarduketan guztietan.
- Gure jarduera eta zerbitzu guztietatik sexismoa, bereizkeria, jazarpena eta sexu-estereotipoak desagerraraztea.
- Laguntza berezia garatzea askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeentzat eta indarkeria matxistak erasotutako beste kolektibo batzuentzat –sexu-bestelakotasuna duten pertsonak, migratzaileak, funtzio-bestelakotasuna duten pertsonak, langabezia egoeran daudenak edo mendekotasuna dutenak–, laguntza-prozesuetan askotariko biktimizazioan erori gabe.
- Gizarte zibilaren parte-hartzea, bereziki emakumeen erakundeena.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

Erabaki hau igortzea Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzara, jarraipena egiten duenean eta Istanbulen Hitzarmeneko 68. artikulua aplikatuz GREVIOri txostenak igortzen dizkionean, jaso ditzan 7.3 eta 18.2 artikuluei jarraituz, toki administrazioaren jarduerak.”

3. S.A.I.k idatzia aurkeztu zuen *Garatamako bidea* egoera txarrean dagoela azalduz eta konpontzeko laguntza eskatuz. Aho batez erabaki da bidea konpontzeko auzolana antolatzea ahal bezain pronto.

## **8. ALKATETZAREN EBAZPENAK.**

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2015eko irailaren 18koa, J.L.E.ri baimena eman ziona, *Totolaz* parajeko laritzen landaketako itxitura kentzeko; 2015eko irailaren 21koa, J.P.i baimena eman ziona, kanpaldia egiteko *Mendaurko* embaltsean; 2015eko irailaren 28koa, 1 poligonoko 78 partzelan dagoen *Iaulinborda baserriaren* birgaitze eta handitzea lehen aldiz erabiltzeko eta okupatzeko lizentzia eman ziona G.H.i; 2015eko urriaren 2koa, *Herriko Ostatuko* ordutegia luzatu zuena urriaren 4rako; 2015eko urriaren 8koa, Nafarroako Gobernuak Mendiko Zerbitzuak baimena eman ziona, sasiak kentzeko lanak egiteko *Lakesta*, *Legargorri* eta *Eluspuro* parajeetan —lusail komunalak—; 2015eko urriaren 13koa, B.El.ri lizentzia eman ziona, Latsagako Bideko 4. garajea ur-sareari lotzeko.

## **9. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

1. J.C.E.A.k pelleteko estufa jarri zuen *Herriko Ostatuan* eta hori Udalak ordaindu eta negozioarentzat uztea proposatu du ahoz. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da E. jaunari jakinaraztea:

- Udalak ez dauka estufa erosteko asmorik.
- Ostata Udalarena izanik, diru-laguntza lortu zen eta ondorioz, kostua jeitsi.

Kostu hori izan beharko du kontuan noizbait saltzen badu.

2. Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak emango dizkie Nafarroako toki entitateei, Gazteen Bermearen Sistemaren inskribaturiko gazte langabeak lan munduan txertatzea errazteko asmoz. Baldintzen berri eman du idazkariak.

3. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: esplotazioen erregistroan izandako mugimendua, Abeltzaintzako zerbitzuak bidali duena —J.M.M.ren aldaketa—; Kantauriko Ur-Kondeferazioak 2015eko irailaren 17an emandako Ebazpena, *Arrutela* eta *Sarobeko erreketatik* ura aprobetxatzeko; web orriak .EUS-era aldatzeko aukera —aldatzea erabaki da—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak; Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioako Kontseilariaren 6E/2015 Foru Agindua, hertsatzeko isunaren aurka J.A.E.k jarritako gora jotzeko errekurtoa atzera bota zuena; 311/2015 eta 312/2015 Ebazpenak, Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emanak, “Ameztia eta Arrutola auzoetarako bideak” eta “Biltontzi erregulatzaile berria, 250 metro kubikokoa, eta horretarako sarbidea” izeneko inbertsioen aurrekontua eta diru-laguntza onesten dituztenak; ikuskapen-akta, 5 poligonoko 3 partzelan harriak pilatu eta obra-hondakinak bota direlako.

Jagoba Manterola sartu da.



**ITURENGO UDALA**  
(Nafarroa)  
31745

4. Urriaren 27an Hezkuntza Departamentuan izandako bileraren berri eman da. Eskola berria eraikitzeko proposak ikusten diren lursailak aztertu eta jabeekin hitz egiten hasia erabaki da.

5. M.E. abokatuak Lindutx enpresarekin eramatzen ari den negozioaren berri eman da.

#### **10. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).**

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 22:30ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

---